DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

| 34. AKTA | ACTA N.º 34 |
|---|---|
| **Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea** | **Comisión de Servicios a las Personas** |
| **Batzar mota:** Ohikoa | **Sesión:** Ordinaria |
| **Eguna:** 2026-06-15 | **Día:** 15-06-2026 |
| **Ordua:** 09:20 | **Hora:** 09:20 |
| **Tokia:** Loretope Aretoa | **Lugar:** Sala Loretope |
| **Batzordeburua:** Iñaki Gabarain Gaztelumendi | **Preside:** Iñaki Gabarain Gaztelumendi |
| **Etorritakoak:** | **Asistentes:** |
| **Batzordeko kide diren zinegotziak:** | **Concejales y concejalas miembros de la Comisión:** |
| Idoia Gracia Monge | Idoia Gracia Monge |
| María Jesús Idoeta Madariaga | María Jesús Idoeta Madariaga |
| Martin Ibabe Eceiza | Martín Ibabe Eceiza |
| Kerman Orbegozo Uribe *(10:33an bilkuratik atera da eta 10:38an bertaratu da berriro bilkurara)* | Kerman Orbegozo Uribe *(se retira de la sesión a las 10:33 h. y se reincorpora a las 10:38 h.)* |
| Sandra Barrenetxea Diez | Sandra Barrenetxea Díez |
| Markel Ormazabal Gaztañaga *(09:43an bilkuratik atera da eta 09:46an bertaratu da berriro bilkurara. 10:36an bilkuratik atera da)* | Markel Ormazabal Gaztañaga *(se retira de la sesión a las 09:43 h. y se reincorpora a las 09:46 h. A las 10:36 h. se retira de la sesión)* |
| Izar Hernando Ibero | Izar Hernando Ibero |
| Arantxa López Simón | Arantxa López Simón |
| Vanessa Vélez de Pablos *(09:22an bertaratu da bilkurara)* | Vanessa Vélez de Pablos *(se incorpora a la sesión a las 09:22 h.)* |
| Arantza González García | Arantza González García |
| **Beste zinegotzi batzuk:** | **Otros/as concejales/as:** |
| Olatz Yarza Garagorri *(09:48an bertaratu da bilkurara eta 10:23an atera da)* | Olatz Yarza Garagorri *(se incorpora a la sesión a las 09:48 h. y se retira a las 10:23 h)* |
| Nekane Arzallus Iturriza *(09:44an bertaratu da bilkurara eta 10:04an atera da)* | Nekane Arzallus Iturriza *(se incorpora a la sesión a las 09:44 h. y se retira a las 10:04 h.)* |
| **Idazkaria:** Irune Larrea Sistiaga, Idazkariak eskuordeturik. | **Secretaria:** Irune Larrea Sistiaga, por delegación de la Secretaria General. |

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- 2026ko maiatzaren 18an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 18 de mayo de 2026.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 33. akta, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba por unanimidad el acta número 33, correspondiente a la sesión celebrada el día 18 de mayo de 2026.

**2. – Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, haur eta nerabeen babesa eta ongizatea bermatzeko zuzendutako udal zerbitzuen saturazioari buruzkoa.**

**2. – Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la saturación de los servicios municipales dirigidos a garantizar la protección y el bienestar de niños y adolescentes.**

*(09:22an Vanessa Vélez andrea bilkurara bertaratu da)*

*(A las 09:22 h la Sra. Vélez de Pablos se incorpora a la sesión*

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

Haur guztiek familian giro goxoa eta osasuntsua behar dute behar bezala hazi eta hezi, eta bizitzeko; baina arrazoi desberdinak direla medio, badira guraso eta familia unitate ugari arazoak eta zailtasunak bizi dituztenak eta, ondorioz, seme-alabak modu egokian zaindu ezin dituztenak. Kasu horietan, administrazio publikoek egoera bideratzeko ardura dute, haurren eta nerabeen eskubidean bermatzeko. Betebehar hori Euskal Autonomia Erkidegoko Adingabeen Babes-sisteman datza, Otsailaren 15eko 2/2024 Legean oinarritzen dena. Babes sistema honek haur eta nerabeen interes gorena lehenestea du helburu, haurrak eta nerabeak babes-subjektu soil izatetik eskubide osoko titular gisa irudikatzera igaroz.

JUSTIFICACIÓN

Todos los niños y niñas necesitan un ambiente familiar acogedor y saludable en el que crecer, educar y vivir adecuadamente, pero existen numerosas unidades parentales y familiares que, por diferentes motivos, atraviesan problemas y dificultades que les impiden atender adecuadamente a sus hijos e hijas. En estos casos, las administraciones públicas son responsables de reconducir la situación para garantizar los derechos de los niñas, niños y adolescentes. Esta obligación consiste en el Sistema de Protección de las Personas Menores de Edad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, basado en la Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia. Este sistema de protección pretende primar el interés superior de niñas, niños y adolescentes, pasando de ser meros sujetos de protección a representarlos como titulares de pleno derecho.

Gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak eta bertatik eratorritako araudiek, haurren babesgabezia kasuetarako eskumen esparrua definitzen dute, lehen mailako arreta udalerrietako

Además, la Ley 12/2008 de Servicios Sociales y la normativa derivada de esta, definen el marco competencial para los casos de desprotección infantil, asignando la atención primaria a los servicios

gizarte zerbitzuei eta bigarren mailako arreta lurraldeko gizarte zerbitzuei esleituz. Hortaz, Udalei larritasun arin edo ertaineko arrisku- edo babesgabetasun-egoeretan dauden haur eta nerabeei arreta emateko esleitu zaien eskumena da eta Diputazioen ardura izaten dira larritasun handiko jakinarazpenak, hau da, babesgabetasun arrisku larrikoak.

sociales municipales y la atención secundaria a los servicios sociales territoriales. Por tanto, se trata de una competencia atribuida a los Ayuntamientos para la atención a niños, niñas y adolescentes en situaciones de riesgo o desprotección de gravedad leve o moderada; mientras que las Diputaciones son las responsables de las comunicaciones de gran riesgo, es decir, de las comunicaciones de riesgo grave de desprotección.

Donostiako Udalak haur eta nerabeei zuzendutako hiru esku hartze lerro nagusi ditu gizarte zerbitzuen atalean, aipatu legediak ematen dizkion eskumenetan oinarrituta:

El Ayuntamiento de San Sebastián cuenta con tres grandes líneas de intervención dirigidas a la infancia y la adolescencia en el ámbito de los servicios sociales, en base a las competencias que le otorga la citada legislación:

1) Eskola-eremuan eta komunitate-eremuan babesgabetasuna detektatzeko prestakuntza.

1) Formación para la detección de desprotección en el ámbito escolar y comunitario.

2) Haur eta nerabeekin harremana duten guneetako profesionalei aholkularitza.

2) Asesoramiento a profesionales de espacios relacionados con la infancia y la adolescencia.

3) Familiekin esku-hartzea gizarte langile, psikologo komunitario eta gizarte hezitzaileen bidez.

3) Intervención con familias a través de trabajadoras/es sociales, psicólogas/os comunitarias/os y educadoras/es sociales.

Udaleko 2024ko Gizarte zerbitzuen memoriaren arabera, 783 haur eta nerabe artatu ziren esku-hartze goiztiarreko programaren bidez eta 965 babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoei zuzendutako programen bidez. Arta horiek oinarrizkoak dira haurren eskubideak eta ongizatea bermatzeko, haurtzaroak berezkoa duen mendekotasun eta zaurgarritasuna kontuan hartuta. Izan ere, haur eta nerabeen babesgabetasun egoerak goiz detektatzea ezinbestekoa da kalte emozionalak eta fisikoak ekiditeko, trauma kronikoak saihesteko zein pertsonaren garapen seguru eta integrala bermatzeko. Era berean, esku-hartzea goiztiarra denean, nabarmen handitzen da haurraren eta gurasoen errehabilitazio eta babes arrakastatsuaren probabilitatea.

Según la Memoria de los Servicios Sociales Municipales de 2024, se atendió a 783 niñas, niños y adolescentes a través del programa de intervención temprana y 965 a menores en situación de desprotección. Estas atenciones son básicas para garantizar los derechos y el bienestar de la infancia, teniendo en cuenta la dependencia y la vulnerabilidad inherente a ella. La detección precoz de situaciones de desprotección infantil y adolescente es imprescindible para evitar daños emocionales y físicos, para evitar traumas crónicos y para garantizar un desarrollo personal seguro e integral. Asimismo, cuando la intervención es precoz, aumenta considerablemente la probabilidad de rehabilitación y protección exitosa tanto de la persona menor como la de sus padres.

Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak herritarren atea dira gizarte zerbitzu sisteman sartzeko eta egoera zaurgarriak detektatzeko; horregatik, garrantzitsua da administrazio publiko eskudunak eraginkorrak izatea, udala kasu, babesgabetasun egoerak epe laburrean hautemanez, prebentzio lana sustatuz eta kasu arinetan esku hartuz, egoeren larritasuna ez areagotzeko.

Los servicios sociales de base municipales son la puerta de entrada de la ciudadanía al sistema de servicios sociales y la detección de situaciones de vulnerabilidad, por lo que es importante que las administraciones públicas competentes sean eficaces, en este caso el Ayuntamiento, detectando situaciones de desprotección a corto plazo, promoviendo la labor preventiva e interviniendo en casos leves, para que la gravedad de dichas situaciones no empeore.

Jakin izan dugu lan hauetara bideratutako babes-programak saturazio egoeran daudela, eta horrek izan ditzakeen ondorioekin kezkatuta gaude.

Hemos sabido que los programas de protección destinados a estas actuaciones se encuentran en una situación de saturación y nos preocupa las consecuencias que esto pueda tener.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIOA egiten du:

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- Zer dela eta dago itxaronaldia haurrei gizarte hezitzaileak esleitzeko? Udal Gobernuak uste du onargarria dela babesgabetasun egoeran dauden haurrek eta haien gurasoek hainbeste hilabetez hezitzaile bat esleitu zain igaro beharra? Zenbat dira egoera honetan dauden kasuak? Zenbateko epealdia ematen da gaur egun Udalean haur edo nerabe baten egoeraren balorazioa egiteko eta esku hartzea martxan jartzeko?

- ¿Por qué hay tiempo de espera para asignar educadoras/es sociales a niñas y niños? ¿Cree el Gobierno Municipal que es aceptable que las niñas y niños en situación de desprotección y sus padres tengan que pasar meses a la espera de que se les asigne un/a educador/a social? ¿Cuántos casos se encuentran en esta situación? ¿Qué plazo se da actualmente en el Ayuntamiento para valorar la situación de un niño, niña o adolescente y poner en marcha la intervención?

- Neurtu al da zein ondorio ekarriko duen atzerapen eta itxaronaldi honek haur eta nerabearen ongizatean eta segurtasunean?

- ¿Se han medido los efectos de este retraso y plazo de espera en el bienestar y la seguridad del niño, niña o adolescente?

- Zer dela eta luzatu da Foru Aldundian kasu larrien balorazioa bi hilabetetik sei hilabetera? Zein ondorio du Foru Aldundiak haren eskumenak ez betetzeak Udalak haur eta nerabeei zuzenduta dituen zerbitzuetan? Zer gertatzen da Foru Aldundiko itxaron zerrendetan dauden (eta beraz, kasu larriak diren) donostiarrekin, Foru Aldundiko zerbitzuetan arta jasotzen hasi bitartean?

- ¿Por qué se ha ampliado de dos a seis meses el plazo la valoración de los casos graves en la Diputación? ¿Qué consecuencias tiene el incumplimiento de sus competencias por parte de la Diputación Foral en los servicios que el Ayuntamiento tiene dirigidos a la infancia y la adolescencia? ¿Qué pasa con los donostiarras que están en las listas de espera de la Diputación (y por tanto son casos graves) hasta que empiezan a ser atendidos en los servicios forales?

Donostian, 2026eko ekainaren 5ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, a 5 de junio de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

María Jesús Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>3.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Oxigraf eraikin zaharreko desalojoari buruzkoa.</u>**

**<u>3. – Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el desalojo del viejo edificio de Oxigraf.</u>**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Jon Insausti alkateari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 22an Herrerako beste eraikin bat

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al alcalde Jon Insausti, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 22 de mayo se desalojó otro edificio en

desalojatu zen eta, Harrera Sareak salatu duenez, zazpi pertsona kalean gelditu dira beste alternatibarik gabe. Antza, eta udaleko iturriek zabaldutakoaren arabera, Oxigrafen jabeak eraikina husteko baimena eskatu zion epaileari, eta egun horretan jaso zuten baimena. Ondorioz, desalojoaren dispositiboa ertzaintzak zuzendua izan zen, baina alkateak adierazi zuen dispositiboaren aurretik gizarte langileak pabiloi abandonatu horretan egon zirela, eta han bizi ziren pertsonekin hitz egin zutela.

Herrera. Según Harrera Sarea, siete personas han quedado en situación de calle, sin ninguna alternativa. Según la información facilitada por fuentes municipales, al parecer, el propietario de Oxigraf solicitó una orden de desalojo al juez, orden que recibió en esa fecha. Por tanto, aunque el dispositivo de desalojo fue gestionado por la Ertzaintza, el alcalde declaró que previa puesta en marcha de dicho dispositivo, varias/os trabajadores/as sociales acudieron al pabellón abandonado, para hablar con las personas que pernoctaban en él.

Hala ere, Harrera Sareak hala adierazita, Udala ez zen eraikinean bizi ziren pertsonekin kontaktuan jarri, eta ez zeukaten desalojoaren berri. Horren adibide da, besteak beste, desalojoa eman zen unean formazioan zeudelako haien objektuak jaso ezinik gelditu diren bi mutilen kasua. Harrera Sareak adierazi duenez, eraikinean zeuden herritarren erdiak baino gehiagok erregularizazio tramitea onartuta dute eta kurtso profesional desberdinetan parte hartzen ari dira.

No obstante, según Harrera Sarea, el Ayuntamiento no se puso en contacto que las personas que pernoctaban en el edificio, y estas no tenían conocimiento de que se iba llevar a cabo un desalojo. Prueba de ello es el caso de dos chicos que no pudieron recoger sus pertenencias, porque en el momento del desalojo se encontraban en una formación. Según indica Harrera Sarea, más de la mitad de las personas que pernoctaban en el edificio tienen aprobado el trámite de regularización, y participan en diferentes cursillos profesionales.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIOA egiten du:

- Zer dela eta adierazi zuen publikoki alkateak Oxigraf eraikinean zeuden pertsonei “alternatibak eskaini zizkiela”, baina hauek ez zituztela onartu proposatu zizkieten baldintzak? Zein dira erregularizazio prozesua abiatuta duten eta formazioak jasotzen dituzten pertsona hauek onartu ez zituzten baldintzak?

- Zein da, zehazki, Udalak desalojo honetan izan zuen esku-hartzea eta parte hartzea? Noiztik zuen desalojo egunaren berri? Eta noiz joan ziren gizarte langileak, Udalaren arabera, desalojatu beharreko eraikinera, bertan zeuden pertsonekin harremanetan jartzera?

Es por ello por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo afirmó el alcalde que «se había ofrecido alternativas» a las personas que pernoctaban en el edificio de Oxigraf, y que estas no habían aceptado sus condiciones? ¿Cuáles son las condiciones que no aceptaron estas personas, que tienen iniciado el proceso de regularización y están recibiendo diferentes formaciones?

- ¿Qué intervención y participación tuvo el Ayuntamiento en este desalojo en concreto? ¿Desde cuándo tenía conocimiento de la fecha de desalojo? Según el Ayuntamiento, ¿cuándo acudieron las/os trabajadoras/os sociales a este edificio, a contactar con la personas que allí se encontraban?

Donostian, 2026ko ekainaren 5ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

San Sebastián, a 5 de junio de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH BILDU”.

María Jesús Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4. – Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Udaleraiki 2025 programaren udalerri onuradunen artean Donostia ez**

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la ausencia de Donostia entre los municipios beneficiarios del**

**egoteari buruzkoa.**

Arantza Gonzalez andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

“Victor Lasa jaunak, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Udaleraiki 2025 programaren onuradun diren udalerrien artean Donostia ez egoteari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Ikastetxe publikoak mantentzea eta hobetzea administrazioen artean partekatutako erantzukizuna da, eta funtsezkoa da ikasleentzat ikaskuntza-baldintza egokiak bermatzeko.

Udaleraiki programa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustatzen du, eta EAEko udalerrietako ikastetxe publikoak hobetzeko, eraberritzeko eta egokitzeko jarduerak finantzatzea du helburu.

Hala ere, 2025eko ekitaldirako udalerri onuradunen zerrendan ez da Donostia agertzen, nahiz eta Euskadi mailan ikastetxe publiko gehien dituen hirietako bat izan, non Haur eta Lehen Hezkuntzako 19 ikastetxe publiko dauden. Egoera horrek arrazoizko zalantzak sortzen ditu Udalak laguntza horiek eskuratzeko bultzatutako jarduketei buruz eta Eusko Jaurlaritzarekin duen ezinbesteko lankidetzari buruz, bai eta gauzatzeke geratu diren hezkuntza-azpiegituretan egin daitezkeen inbertsioei buruz ere.

Horiek horrela, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da agertzen Donostia Udaleraiki 2025 programaren udalerri onuradun ezagunen artean, nahiz eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 19 ikastetxe publiko izan, eta horiek aldizkako mantentze-, kontserbazio- eta hobekuntza-lanak behar dituzten?

2. Donostiako Udalak aurkeztu al zuen eskaerarik edo proiekturik Udaleraiki 2025 programan parte hartzeko? Erantzuna baiezkoa bada, zer jarduketa zehatz proposatu zituen? Erantzuna ezezkoa

**programa Udaleraiki 2025.**

La Sra. Gonzalez García expone la siguiente interpelación:

“Dr Victor Lasa, Portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, Sr.Insausti, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, sobre la ausencia de Donostia entre los municipios beneficiarios del programa
Udaleraiki 2025.

JUSTIFICACIÓN

El mantenimiento y mejora de los centros públicos de educación constituye una responsabilidad compartida entre las distintas administraciones y resulta fundamental para garantizar unas condiciones adecuadas de aprendizaje para el alumnado.

El programa Udaleraiki, impulsado por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, tiene precisamente como finalidad financiar actuaciones de mejora, reforma y adecuación en los centros públicos educativos de los municipios vascos.

Sin embargo, en la relación de municipios beneficiarios conocida para el ejercicio 2025 no figura Donostia / San Sebastián, pese a ser una de las ciudades con mayor número de centros públicos de Euskadi y contar con 19 centros públicos de Educación Infantil y Primaria. Esta circunstancia genera dudas razonables sobre las actuaciones impulsadas por el Ayuntamiento para acceder a estas ayudas y la imprescindible colaboración del Gobierno Vasco, así como sobre las posibles inversiones en infraestructuras educativas que hayan podido quedar pendientes de ejecución.

Por lo tanto, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué Donostia no figura entre los municipios beneficiarios conocidos del programa Udaleraiki 2025, pese a contar con 19 centros públicos de Educación Infatil y Primaria que requieren labores periódicas de mantenimiento, conservación y mejora?

2. ¿Presentó el Ayuntamiento de Donostia solicitudes o proyectos para acogerse al programa Udaleraiki 2025? En caso afirmativo, ¿qué actuaciones concretas fueron propuestas? Y en caso negativo,

bada, zergatik ez ziren planteatu?

3. Zer erantzun eman du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskaera horien inguruan, eta zer administrazio-egoeratan daude gaur egun?

4. Hiriko ikastetxe publikoetan aurreikusitako zer inbertsio edo jarduketa geratu dira gauzatzeke edo finantzatzeke 2025ean, programa horren bidez finantzaketarik ez lortzeagatik, baldin eta hala gertatu bada?

5. Udal Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du, etorkizunean ikastetxe publikoek hezkuntza-azpiegiturak hobetzeko finantzaketa-lerroak eskuratzeko aukera izan dezaten, gainerako euskal udalerrien baldintza berberetan?

¿por qué no se plantearon?

3. ¿Cuál ha sido la respuesta recibida por parte del Departamento de Educación del Gobierno Vasco respecto a dichas solicitudes y en qué situación administrativa se encuentran actualmente?

4. ¿Qué inversiones o actuaciones previstas en centros públicos de la ciudad han quedado pendientes de ejecución o financiación durante 2025 como consecuencia de no haber obtenido, en su caso, financiación a través de este programa?

5. ¿Qué medidas piensa adoptar el Gobierno Municipal para garantizar que los centros públicos de Donostia puedan acceder en el futuro a las líneas de financiación destinadas a la mejora de las infraestructuras educativas en igualdad de condiciones que el resto de municipios vascos?

Donostia, 2026ko ekainaren 05a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

Donostia, a 05 de Junio de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Iñaki Gabarain jaunak eta Arantza González andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Gabarain Gaztelumendi y la Sra. González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(09:43an Markel Ormazabal jauna bilkuratik atera da)*

*(A las 09:43 h. se retira el Sr. Ormazabal Gaztañaga de la sesión)*

*(09:44an Nekane Arzallus andrea bilkurara bertaratu da)*

*(A las 09:44 h. la Sra. Arzallus Iturriza se incorpora a la sesión)*

*(09:46an Markel Ormazabal jauna bertaratu da berriro bilkurara)*

*(A las 09:46 h. se incorpora el Sr. Ormazabal Gaztañaga)*

**5. – Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, gazte aterpetxeetako aldaketa langileengan izandako ondorioei buruzkoa.**

**5. – Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las consecuencias que ha tenido el cambio de los albergues juveniles para sus trabajadores.**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del

134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Jon Insausti alkateari, hari buruzko azalpenak Pertsonen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Duela hilabete gutxi aurkeztu eta martxan jarri zen Aukerak programa, bazterkeria eta kale egoeraren aurrean baliabide gisa. La Sirena aterpetxea, ordura arte gazte aterpetxea izandakoa, programa honen mesedetan jarri du Udalak. Bazterkeriaren arloan lanabes bat gehiago izango den honek, baina, barne-mailako aldaketak ekarri ditu, langileetatik hasita. Izan ere, Aukerak programaren baitan La Sirenan dauden langileak ez dira gazte aterpetxe moduan funtzionatzen zuenean bertan zeuden udal langileak. Ondorio horiek izango zirela jakin zenean, alkateak adierazi zuen langile guztiak birkokatuko zirela. Hori ez da horrela izan, ordea, afektatutako langileek adierazi digutenez; era berean, hilabete hauetan informazio falta ere salatu dute langileek, Hondarretako aterpetxearen erabilera aldatuko zela publiko egin zen unetik hasita.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIOA egiten du:

- Zer dela eta ez du bermatu Udal Gobernuak gazte aterpetxeetako langile guztien birkokapena?
- Zer dela eta ez du bermatu Udal Gobernuak gazte aterpetxeetako langileak informatuta egon zitezen, Hondarretako aterpetxean aldaketak izan direnetik?
- Aurreikusi al du Udal Gobernuak, La Sirena bazterkeriako udal baliabide estrukturala izango dela jakinik, udal langileen bidez zerbitzu hau emateko aukera?
- Zein da Udal Gobernuak gazte aterpetxeen inguruan egiten duen apustua? Zein dimentsio aurreikusten dio datozen urteei begira?

Donostian, 2026ko ekainaren 5ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Kerman Orbegozo jaunak eta Izar Hernando andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al alcalde, Jon Insausti, para que dé las explicaciones pretinentes en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Hace pocos meses, se presentó y se puso en marcha el programa Aukerak, como recurso para dar respuesta a las situaciones de exclusión y de calle. El albergue de La Sirena, hasta entonces albergue juvenil, ha sido puesto por el Ayuntamiento a disposición de este programa. Sin embargo, esta iniciativa, que supone una herramienta más en el ámbito de la exclusión, ha traido consigo cambios internos, empezando por los que afectan al personal del albergue. En efecto, el personal de La Sirena que participa en el programa Aukerak no es el personal municipal que trabajaba en ese espacio cuando funcionaba como albergue juvenil. Cuando se tuvo conocimiento de estos hechos, el Sr. alcalde indicó que se iba a proceder a la recolocación de todo el personal. Esto no ha sido así, tal y como nos indican los trabajadores y trabajadoras afectadas, quienes también han denunciado la falta de información durante estos meses, desde el momento en que se hizo público el cambio de uso del albergue de Ondarreta.

Por todo ello, la concejala abajo firmante hace la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué no ha garantizado el Gobierno Municipal la recolocación de todo el personal de los albergues juveniles?
- ¿Por qué no ha garantizado el Gobierno Municipal la información al personal de los albergues juveniles, desde que se produjeron los cambios en el albergue de Ondarreta?
- ¿Prevé el Gobierno Municipal −sabiendo que La Sirena será un recurso estructural municipal en el ámbito de la exclusión− la posibilidad de prestar este servicio con personal municipal?
- ¿Cuál es la apuesta del Gobierno Municipal por los albergues juveniles? ¿Qué dimensión tiene prevista, de cara a los próximos años?

San Sebastián, a 5 de junio de 2026

Izar Hernando Ibero,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto el Sr. Orbegozo Uribe y la Sra. Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(09:48an Olatz Yarza andrea bilkurara bertaratu da)*

**6. – Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, bizitegi-larrialdiari buruzkoa.**

Arantza González andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

“Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Donostiako bizitegi-larrialdiari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN.

JUSTIFIKAZIOA

Udaleko Gizarte Ekintzaren 2025eko memoriak agerian uzten du hirian etxebizitza eskuratzeko egoera oso larria dela, bereziki familia kalteberenentzat.

Esate baterako, 2024arekin alderatuta, larrialdi-bazterketako bizitokien eskaerak % 22 igo dira, eta gizarte-bazterkeriaren balorazioa, berriz, % 16,4.

Gauza bera gertatzen da etxebizitza baliatzeko eta mantentzeko gizarte-larrialdietarako laguntzekin ere, 2024arekin alderatuta:

- Etxebizitza-errentamendua: %4,9
- Logela-errentamendua: %110,65
- Etxebizitzaren errentamendu partekatua: %35,17
- Etxebizitzaren azpierrentamendua: %21,6
- Hotelak eta ostatu-etxeak: %103,94

Egoera hori larriagotu egin daiteke, familia kalteberak babesten zituen "gizarte-ezkutu" delakoa desagertu egin delako eta gerta daitekeelako alokairu-kontratu egonkorrak ez berritzea, baldin eta errentatzaileek hala erabakitzen badute.

Badakigu, halaber, gizarte-zerbitzuak kalteberatasun-txosten ugari egiten ari direla, pertsona batzuk eremu tentsionatuetan —halaxe da Donostiaren kasua— ezarritako hiru urteko luzapenaz baliatu ahal izan daitezen, Etxebizitza Eskubidearen aldeko 12/2023 Legean

*(A las 09:48 h. la Sra. Yarza Garagorri se incorpora a la sesión)*

**6. – Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con la emergencia habitacional.**

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

“Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, Sr. Insausti, en la Comisión de Servicios a las Personas, en relación con la emergencia habitacional en Donostia.

JUSTIFICACIÓN

La Memoria de 2025 de Acción Social del Ayuntamiento, pone de relieve la gravísima situación de acceso a una vivienda en la ciudad, especialmente para las familias más vulnerables.

Por ejemplo, respecto a 2024, las solicitudes de alojamientos de urgencia-exclusión han aumentado un 22% y la valoración de la exclusión social un 16,4%.

Lo mismo ocurre con las Ayudas de Emergencia Social destinadas al disfrute y mantenimiento de la vivienda, respecto a 2024:

- Arrendamiento de vivienda: 4,9%
- Arrendamientos de habitación: 110,65%
- Coarrendamiento de vivienda: 35,17%
- Subarrendamiento de vivienda: 21,6%
- Hoteles y pensiones: 103,94%

Esta situación puede verse seriamente agravada por la desaparición del denominado “escudo social” que protegía a las familias vulnerables y por una posible no renovación de contratos de alquiler estables en caso de que los arrendadores no decidan su renovación.

Nos consta también que los servicios sociales están emitiendo numerosos informes de vulnerabilidad para que algunas personas puedan acogerse a la prórroga de los tres años prevista en la Ley 12/2023 por el derecho a una vivienda cuando se trata de zonas tensionadas, como es el caso de Donostia.

aurreikusitakoarekin bat.

Azken batean, 2025eko datuek jadanik agerian utzi zuten familia kalteberenek arazo gehiago dituztela etxebizitza bat mantentzeko edo eskuratzeko, eta aurten are larriagoa izan daiteke egoera; hala ere, administrazio publikoek ez dute haientzako bizitegi-alternatibarik, nahiz eta EAEko Etxebizitzaren Legean etxebizitza eskubide subjektibo gisa aitortzen den.

Bien bitartean, Donostiak ia 1.500 etxebizitza huts kudeagarri ditu, eta ia 1.400 etxebizitza turistiko. Hala ere, gobernu honek etxebizitza hutsei ez die aplikatzen EAEko Etxebizitzaren Legean ezarritako kanona, ez eta beste neurri batzuk ere, hala nola jenderik gabeko etxebizitzak nahitaez alokatu edo desjabetzekoa.

Zoritxarrez, alkatearen kalitate-botoarekin, Udalaren bi lurzati, zeinean Eusko Jaurlaritzak etxebizitza publikoak eraiki zitzakeen, esku pribatuetara pasatuko dira, eta, gainera, diru publikotik lau milioi gastatuko dira horretan. Aldi berean, Donostiak prezio garestienen errekorra izaten jarraitzen du, bai etxebizitza alokatzeko, bai erosteko.

Horiek hala direla, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez ditu aplikatzen Euskadiko Etxebizitzaren Legean etxebizitza hutsik ez egoteko jasotzen diren neurri guztiak?

2. Gizarte Ekintzaren 2025eko memoriaren datuek agerian uzten dute familia kalteberenek arazo argiak dituztela etxebizitza bat eskuratzeko edo mantentzeko. Datu horiek ikusita, zer neurri hartzen ari da udal-gobernua Donostiako etxegabetzeak ugaritu ez daitezen?

3. Gizarte-zerbitzuak ari al dira ohartarazten etxebizitza bat mantentzearekin edo eskuratzearekin lotutako kasuak ugaritu egin direla?

4. Nola bete du Gobernuak Udalbatzak otsailean onetsitako mozioa, eremu tentsionatu gisa alokairu-prezioen erreferentziazko indizeak aplikatzeari dagokienez?

Donostia, 2026ko ekainaren 5a

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia”.

En definitiva, que si ya los datos de 2025 evidencian un aumento de los problemas de mantenimiento o acceso a una vivienda para las familias más vulnerables, este año puede verse todavía más agravada, sin que las administraciones públicas cuenten con una alternativa habitacional para ellas, a pesar del derecho subjetivo reconocido en la Ley de Vivienda vasca.

Mientras tanto, Donostia tiene casi 1.500 viviendas vacías gestionables, y casi 1.400 pisos turísticos. Sin embargo, este gobierno no aplica el canon a la vivienda vacía establecido en la Ley de Vivienda vasca ni otras medidas como al alquiler o la expropiación forzosas de las viviendas deshabitadas.

Lamentablemente, el voto de calidad del Alcalde ha servido para que dos parcelas para vivienda pública que podría haber construido el Gobierno Vasco en sendas parcelas municipales, vayan a pasar a manos privadas gastando además 4 millones de dinero público para ello. A la vez, Donostia sigue ostentando el récord de precios más caros tanto para alquiler como para compra de una vivienda.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón el gobierno municipal no aplica todas las medidas contempladas en la Ley de Vivienda vasca para impedir que haya viviendas vacías?

2. A la vista de los datos de la Memoria de Acción Social de 2025 que evidencian claros problemas de acceso o mantenimiento de una vivienda a las familias más vulnerables, ¿que medidas está tomando el gobierno municipal para impedir que se multipliquen los desahucios en Donostia?

3. ¿Están alertando los servicios sociales de un aumento de casos relacionados con el mantenimiento o acceso a una vivienda?

4. ¿De qué manera ha dado cumplimiento el gobierno a la moción aprobada por el Pleno municipal en el mes de febrero en relación con los índices de referencia de precios de alquiler como zona tensionada?

Donostia, a 5 de junio de 2026

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia”.

Nekane Arzallus eta Arantza González andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Arzallus Iturriza y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(10:04an Nekane Arzallus andrea bilkuratik atera da)*

*(A las 10:04 h. se retira la Sra. Arzallus Iturriza de la sesión)*

* * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, Batzordeburuak 7. eta 11.3 gaiak batera jorratzea erabaki du.

Con la conformidad de todos/as los/as presentes, el Presidente decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 7 y n.º 11.3.

* * *

**7.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, 2030eko Munduko Txapelketaren ospakizunaren gainean.**

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con la celebración del Mundial 2030.**

Arantza González andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN, 2030ko Munduko Txapelketa dela-eta .

"Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, Sr. Insausti, en la Comisión de Servicios a las Personas, en relación con la celebración del Mundial 2030.

JUSTIFIKAZIOA

